

...eta kitto!

749 zkia. 2011-1-28

ASTEKARIA

TOKIKOM

Arragueta kaletik modernizatzen

EUKi

ARTEKARITZA

Toribio Etxebarria, 1 - behea
943 20 42 99

AUTOAREN ASEGURUA
preziorik onenean



Gaur egun denok nahi dugu irribarre osasuntsu eta politaren jabe izan, baina horrelako irribarre lortzeko ez dira nahikoa tratamendu estetikoak. Hortzeria itsusia konpontzeko protesi-finkoak edo zorroak ipintzea baino zerbait gehiago behar da. Aho barruan, hortzaren oinarria den eta aparteko garrantzia duen atal bat badago: hortzoia. Horrek estetika eta osasuna dakarkio ahoari. Murillo doktorea periodontzian aditua eta Espainia-ko Periodontzia Elkartearen kide aktiboa da; horrez gain, periodontziako hainbat masterretako irakaslea ere bada eta berak azaldu digu zeinen garrantzitsua den hortzoiaren osasuna nola dagoen urtean behin begiratzea.

- Zergatik da horren garrantzitsua hortzoiak zaintzea?

IRAZABAL HORTZ KLINIKAN hortzoia gerora egin beharreko edozein tratamendurako oinarritzat hartzen dugu, tratamendu horrek luzaroan irautea, eraginkorra eta estetikoa izatea nahi baldin badugu. Txantxarrak edo kariesak hortzei eragiten dien moduan, hortzoiak ere gaixotu egiten dira. Hondatzea 30 bat urteen inguruan hasten da eta, horren eraginez, horrenbeste kezka sortzen digun hezur-galera agertzen da. Denborak aurrera egin ahala, neurririk hartu ezean, hortzak jausten hasten dira. Hortzen erorketa horri deitzen diogu periodontitis edo piorrea. 30 urtetik gorako populazioaren %70etik gora arazo periodontalarekin bizi da eta, kasu gehienetan, ez daki.

- Arazorik dagoen antzemateko modurik badugu?

Arazoa hortzoiak odoletan has-tearekin batera agertzen da. Uste dugunaren kontra, hantura negatiboaren, gingibitisaren seinalea da hori. Horrek aurrera egiten badu, hezurra modu atzeraezinean galtzera ailegatu gaitzke (periodontitis). Jatorri bakterianoa duen gaixotasun honek osagai genetiko garrantzitsua du. Gaitz isil eta kronikoa da eta, beraz, begibistako ondorioak agertzerako oso berandu izaten da eta, gaixoak flemoia, hatsa, hortz luzeak edo hortz-mugimendua nabaritzen hasten denerako beranduegi izaten da. Periodontzian garrantzitsua garaiz egindako diagnostikoa da. Edo-



IRAZABAL

clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1. esk.

www.clinicairazabal.com

Tel. 943 208552


info@clinicairazabal.com



ANTONIO MURILLO DOKTOREA:

KLINIKA HONETAN BAKTERIOAK ETA DNA BITARTEZ JOERA GENETIKOA ANTZEMATEKO GAI DIREN PUNTA-PUNTAKO MAKINA ELEKTRONIKOAK ERABILTZEN DIRA DIAGNOSTIKOA EGITEKO

“Diagnostiko goiztiarra da hortzak ez galtzeko giltza”



GERO

Benetako pazientearen irudiak



LEHEN

zein arazoren inguruko diagnostikoa sasoiz egiten baldin badugu, modu eraginkorrean tratamendua emateko gai izango gara.

- Zuek, klinikan, nola egiten diezue aurre periodontziako gaitz?

Irazabal Hartz Klinikaren periodontzian abangoardian gaude: periodontitisa eragiten duten bakterioak eta DNA bitartez joera genetikoak antzemateko gai

diren punta-puntako makina elektronikoak erabiltzen ditugu diagnostikoa egiteko. Irazabal Hartz Klinikaren gaixoa tratatzeko modurik egokiena hozkada orekatzean datzala uste dugu. Horrela, berriz ere modu segurua eta eraginkorrean mastekatzea ahalbidetzaez gain, epe luzera aho-osasun eta estetika eman-go diogu pazienteari. Horregatik, gaixoari ahalik eta mailarik txikienean eragingo dioten tratamendu periodontalak sa-ri-

Zaindu beharrekoak

- Hortz-plaka edo lertzoa pilatzea.
- Hortz luzeak.
- Hortzoiak atzera egitea.
- Hortz-mugimendua.
- Odola botatzea.
- Hatsa.
- Zorne-poltsak.
- Lotutako GAIXOTASUNAK izatea: diabetesa, patologia koronariora, tabakismoa...

tan protesi-finko edo zorroekin bateratzen ditugu, gure pazienteen premia estetiko zein funtzionalak asebetetzeko.

- Sendatzeko modurik badago?

Periontitisa, oraindik ere, gaitz sendaezina da, baina, hala ere, oso modu eraginkorrean sasoiz geratzeko gauza bagara. Baina, horretarako, lehenik eta behin tratamendua eta, ondoren epe labur, ertain eta luzera horri eustea beharrezkoa da. Periodontitisa oso lotura estua dauka diabetearekin, garaiz aurreko erditzearekin, patologia koronariorarekin, infartuekin... Osasunez nola gabiltzan jakiteko analitika egiteko ohitura daukagun moduan, urtean behin gure hortzoiak nola dauden begiratzea joan behar gara. Irazabal Hartz Klinikaren osasun periodontalaren inguruko azterketa egiteko beharrezkoa den teknologia osoa pazienteen zerbitzura ipintzen dugu.

PERIODONTITIS KASUETAKO ASKO KIRURGIA BARIK TRATATU DITZAKEGU



ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartera
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Adrian Alvarez

Maidar Aranberri

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEÑUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Maialen Belaustegi

eta S. Hernandez

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:

Josu Torrealday

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz

TIRADA:

7.950 ale

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHTA:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

HAIZPEKUETAN EGIN.- Errekan, haitz artean uretan sartuta, eskuekin arrainak harrapatu. "Haizpeketuan Osintxutik Mendarora, Ferruel nagusi".

HAKO.- Harridura adierazteko. A zelako. "Hako agurian xaxaria, halako epelkerixak ahomiñian dittuala".

HALA, HALA!.- Agintzeko hitzak. "Hala, hala! goazen hemendik betiko".

ESKUTITZAK

UDALAK BAT EGITEN DU ABENDUAREN 4-KO ELKARRETARATZEAREKIN

Joan den abenduaren 4an berrogei urte bete ziren Roberto Perez Jauregui herriko gaztea frankismoaren aurkako manifestazio batean poliziak tiro egin eta izandako zaurien ondorioz hil zela; poliziaren zapalketa jasan zuen manifestazio hura Ion Etxabe, Enrique Gesalaga eta Mario Onaindia eibartarrak auzipetuta zeuden Burgosekoko epaiketa militarra salatzeko egin zen Eibarren.

Udal honek, Bozeramaileen Batzarraren bidez, bere egiten du abenduak 4an herriko jendeak egin-

dako elkarretaratzean adierazitako sentimena eta Roberto Perez Jaureguiaren familiari bere samina eta elkartasuna helarazi nahi dio, eta, era berean, aitortu egiten du askatasunaren eta demokraziaren alde agertzeagatik 21 urte baino ez zituela bizia kendu zion borroka haren balioa.

Horrekin batera, udalak demokrazian eta justizian duen konfiantza agertu eta orduan gertatutakoak gehiago atzeratu gabe argitzea eskatzen du.

UDAL BOZERAMAILEEN BATZARRA

IKER MORENOREN TOPAGUNEAKO LANKIDEAK EUSKAL JENDARTEARI

Lehenik eta behin, Guardia Zibilak atxilotu eta epaileak espetxeratutako Iker Morenori eta berarekin batera atxilotutako guztiei elkartasuna adierazi nahi diegu eta gobernu, epaile eta hedabideei espetxeratuaren errugabetasun presuntzioa errespetatzeko eskatzen diegu.

Ikerren lan bikaina azpimarratu nahi dugu era berean, bai hezitzaile gisa, bai Topaguneako koordinatzaile gisa eta baita bere herriko kultur bizitzari begirakoa. Publikoa izan da bere jarduna eta gure konfiantza osoa dauka.

Hedabideetan irakurritako informazioaren arabera Ikerrek torturak salatu ditu eta bera ez da bakarria izan. Inkomunikazio egoerak atxilotutako eskubideen urratzea ekarri ohi du, ez baita egoten beraien eskubideak errespetatzen diren bermerik. Torturak

frogatu beharko direla esango duenik egongo da, baina horiek egon ez direla frogatzea legokioke administrazioari eta ezinbestekoak ditugun prebentzio neurrien bidez (konfiantzazko lekukoak, bideo grabaketak...) aukera hori saihestea. Ez da hori horrela izan eta arbuigarritzat jotzen ditugu ondorioak.

Era berean, atxiloteta egunean Topaguneako Atarrabiako egoitzatik zein bere bazkide den Karrikaluzeko elkartetik zazpi ordenagailuen disko gogorrak eta eskuko telefonoak eraman zizkigutela eta gure lana guztiz oztopatuta ikusi dugula adierazi nahi dugu. Euskararen alde lanean aritzeko lan tresnak besterik ez direla eta horiek lehenbailehen buelta diezazkigutela eskatzen dugu.

**JASONE MENDIZABAL (TOPAGUNEAKO LAN TALDEA
ETA ZUZENDARITZA BATZORDEA)**

asteka

HEMEROTEKA

esaldiak

"Bankuek ez dute bezerotzat nahi euren zorrak kitatzen dituztenak; interesen bidezko onura erregularrak behar dituzte. Ingalaterran, esaterako, kreditua eskaintzen duten enpresetako batek ez die mailegu berriak eskaintzen intereserik ordaindu gabe euren kontuetako zorrak kitatzen dituztenei"

(Zygmunt Bauman, soziologoa eta pentsalaria)

"Sinesmena beti dator ulermenaren hutsunea betetzera. Ulermena dagoenean, arrazionaltasuna egokitu egotean, sinesmenak ez du tokirik izaten. Hemen oraindik asko jotzen dugu sinismenera, besterik ezean. Politika zerbaitegarako baldin bada, irabazteko da; gaitzeko bada, ia ez du merezi"

(Benito Lertxundi, abeslaria)



EIBARKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

autuan

SAN BLAS

Datorren astian, otsailaren 3an (eguenian) San Blas ospatuko dogu Eibarren eta, betiko moduan, eguneroko mezetatik kanpora, opillak bedeinkatzeko meza berezixak ospatuko dittue herriko elizetan. San Andresen goizian meza bi ospatuko dittue, 09.00etan eta 11.00etan eta Estaziño kaleko San Agustin parrokian be eguardi partian egingo dabe mezia.

ZINEMAKUEN BAZKARIXA

Zine aretuetako bihargiñen patroia dan San Juan Bosco ospatzeko eta, bide batez, urteko batzarra egitteko alkartuko dira bixar eskualdeko hainbat lagun Eskarne jatetxian, azken urtiotako martxiari segiduta. Batzeko ordua 13.30xetarako dake ipiñitta.

Eibartar bi hil ziran istripuan

AURREKO ASTEKO EGUE-
NIAN ZORNOTZA PARIAN,
EUBAN IZANDAKO ISTRI-
PUAN Javier Alday (67 urte)
eta Loli Ramos (66 urte) andra-
gizon eibartarrak hil ziran eta
haiekin batera auto barruan
zoian 7 urteko illobia zauri larri-
xeekin ospitalera eruan bihar
izan eben. Istripua 15.30ak al-
dera gertatu zan N-634 errepi-
dian, Bizkaibus enpresako au-
tobus batek eta eibartarren au-
tomobillak parez-pare talka egi-



ttian. Autobusa Bilbo-Durango-
Eibar ibilbidia egitten daben li-
neakua da eta gure herritik ur-
tenda, Bilborako bidian zoian.
Istripuan autobus barruko 20
bat lagunek zauriak jasan zi-
tuen, baiña kaso guztietan

zauri ariñak izan ziran. Istripua-
ren barri euki eta gurian albis-
tiak izandako eragiña haundixa
izan zan, hildako bixak herrixan
oso ezagunak ziralako. Zorio-
nez, zauritutako neskatxuak
hobera egitten segitzen dau.

Atxiloketak salatzeko manifestaziñua



Atxiloketa gehixago egon ez daittezen aldarrikau eben manifestaziñuan / MAIALEN BELAUSTEGI

AURREKO ASTIAN POLI-
ZIAK EGINDAKO ATXI-
LOKETA HARIRA, HORI
SALATZEKO MANIFES-
TAZIÑUA deittu eben Ei-
barren Gernikako akordi-
xuaren alde daguazen tal-
diak. Manifestaziñuak Un-
tzagatik urten eban eta he-
rriko kaliak ziharkatu zi-
tuen "Bake bidean aterabi-
de demokratikoak. Atxilo-
keta gehiagorik ez" esaldi-
xa idatzitta zekan pankar-
taren atzetik batutakuak.

AURREMATRIKULA ZABALIK
2011-2012 IKASTURTEA
Tfnoak. 943 202 133
943 121 698
www.lasalleibar.com

Urtarrilaren 31tik otsailaren 11ra (biak bame):
HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA (D ereduak)
DBH (B eta D ereduak)
La Salle Isasi eta Azitain Ikastetxeetan

OINETAKO KONPONKETA
AZKARRA

Don Takon

merkeena
deskantuekin


BAITA...
Giltzen kopia
Konponketak
(poltsa, gerriko...)
Larruzko artikuluen
salmenta

639-236-774
Ibarkurutze, 7 - behea

ITZULPEN

ERA GUZTIETAKO TESTUAK
ITZULTZEN DITUGU,
euskaratik gaztelera,
gaztelera euskarara,
eta ingelesetik euskarara.

ZERBITZUA
elkartea@etakitto.com



“¿Cómo está el patio!”
ikuskizuna antzeztuko
dabe barrero bixar
Lagun Taldekuak .
/ MAIALEN BELAUSTEGI



Arrakasta haundiko espektakulua

LAGUN TALDEAK AURREKO ASTEBURUAN ESKINDU EBAN ESPEKTAKULUAK, BETIKO MODUAN, OSO HARRERA ONA EUKI EBAN Heskuntza Esparruko areto nagusixa bete eban publikuaren aldetik. Adimen urritasuna dakenen alkarrekin eta begiraliak alkarrekin preparatuko

ikuskizunak barria eragiñ eban han batutakuen artian behin baiño gehixagotan eta bixar be hala egingo dabe, “¿Cómo está el patio!” izenburuko ikuskizunaren bigarren emanaldixan. Aurreko astian bezela, zapatuan 17.30xetan hasiko da espektakulua Unibersidade Laboralian.



Txileko ikasliak Ermuko Izarra zentruaren aurrin / SILBIA HERNANDEZ

Txileko ikasliak Eibar-Ermua Uni-n

ENPRESAK PRESTATU ETA SUSTATZEKO ERMUKO IZARRA ZENTRUAN FORMAZI-ÑUA OSATZEKO IES Uni Eibar-Ermua ikastetxeko 13 ikasle txiletarrek ikasten dihardue. Ikasliak Administrazio eta Finantza arlokuak dira eta administrazioarekin lotutako kontuetan sakontzeko asmo-

tan egin dabe bat programiarekin, “Enpresen sorkuntza” asignaturaren barruan. Txiletik etorritako ikaslekin gartzen daben ekimenaren helburua negozio-mundurako profesionalak preparatzia da, Txilen zein Txiletik kanpo horretan biharra egitteko aukeria izan deixin.

anzorik anzo



Amilcar Dos Santos-ek (eskuman) beste urte bi jarraituko dau Galiziako Etxeko presidente.

Karguak barritu dittue Galiziako Etxian

Domekan egiñ eben urteko batzarra Urkizun egoitza dakan As Burgas Galiziako Kultur Etxekuak eta bertan egindako botaziñuan atzera be Amilcar Dos Santos aukeratu eben presidenterekin batera zuzendaritzako kidiak izango dira Antonio Cid, Marisol Colmenero, David Reguilón, Ignacio Unzetabarrenetxea, Teresa Rodríguez, José Ignacio Luque, Julian Gutierrez, Maria Araujo, Silvia Romero, Salustiano Mosquera, Alicia Augusto, Albino Vieites, Benjamin Nieto, Montse Borreguero, Maria Cid, Benito Mendez eta Jose Augusto. Bestalde, Galiziako etxeak azaldutakuari jarraituta, aurtengo iraillian (23, 24 eta 25ian) “Galiziaren Eguna Euskadin” jaialdixa Eibarren, Untzaga aldiari ospatzeko asmua dake. Euskal Autonomia Erkideguan duguaz Gaiziako Etxe guztiak osatzen daben “Irmandade” edo alkartiak urtero antolatzen daben jaialdixa bakotxian herri batian egitten dabe eta oinguan guriari egokitu jako anfitrioi lanak egitteko arduria.


eibar kaleka

Mutiola kalia

Sasoi batian han egon zan Mutiola basarrixari zor detsa izena kalialak, T. Etxebarriaren Lexikoiaren jasotakuaren arabera. Urola, Aixola, Mandiola eta Gisasolarekin loturia ei daka Sansabururako bidian eguan basarrixaren izenak.

Pegora kopurua: 5

Erroldatutakoak: 234



asteko

384

datua

plaza eskaintzen dira Debarrenako erresidentzixetan eta beste 85 eguneko zentruetan, datorren urtera arteko prebisiñueri jarraituz erresidentzixetan 561 plaza egon bihar ziranian eta eguneko zentruetan 119. Arlo horretan bihar gehixen dakan probintziako eskualdia da Debarrena.

AURREKO BARIKUAN PRESENTAU EBEN PSE-EE ALDERDIKO EGOITZAN UDAL HAUTESKUNDIETARAKO EUREN ALKATEGAIXA izango dana: gaur egunian Eibarko alkatea dan Miguel de los Toyos izango da hurrengo elekziñuetarako listan lehengua. Hori ezagutzera emoteko ekitaldixan Eneko Andueza Eibarko sozialisten presidentia, Arcadio Benitez presidenteordia eta Libe Betolaza ohorezko presidentia euki zittuan Toyosek. Hain zuzen be aste honetan bertan jakin dogu Andueza PSE-EEko Hirigintza zinegotzixa maiatzaren 22xan egittekuak diran diputaziñorako elekziñuetan Deba-Urolako zerrendaburua izango dala.

Kandidaturaren presentaziñuan Toyos-ek berak esandakuari jarraituta, "hauxe izango



De los Toyos, Arcadio Benitez, Libe Betolaza eta Eneko Anduezarekin. / SILBIA HERNANDEZ

da alkate izateko hauteskundietara aurkeztuko naizen lehen aldixa, jakiña dan moduan karguan emon dittudan 3 urtiak Iñaki Arriolak lagatako tokixa betetzen dihardut eta". Zuzenbidia ikasi eban Toyosek ibilbide luzia daroia herri maillako politikari: 1995ean Arriolaren zerrendia osatu ebenetako bat izan

zan eta, abokatu moduan biharrin jardun eban arren, segiduan (1999) erabagi eban politikara bete-betian dedikatzia. Harrezkero Udalian hainbat ardura izan dittu, bestiak beste Zerbitzu, Hazienda, Obra eta Hirigintza batzordietan eta 2003an gobernu taldeko bozeramaille kargua betetzen hasi zan.



Otarra Gureak-ekoentzat

EIBARKO EAJ/PNV ALDERDIXAREN IZENIAN erretratuan ikusi zeinkien otar ederra oparitu zetsen Gureak lantegikueri oin dala egun batzuk Mirren Sojo Uri Batzarreko buruak eta Eva Juez ziñegotzi eta alkategaixak. Batzokixak gabonetan egindako zozketan ez da iñor azaldu zenbaki irabazliarekin eta, horregaittik, otarra Eibarko Gureak-eko bihargiñeri emotia erabagi dabe. On egin!

Robotika zapatagintzara Teknikerren eskutik

3'7 MILIOI EUROKO PRESUPUESTUA DAKAN ROBOFOOT EUROPA MAILLAKO PROIEKTUAREN ARDURA NAGUSIXA eukiko dau Teknikerrek, beste hamar entidaderekin batera. Automozioñuaren, metalurgixiaren eta elikaduraren industriak aurretik be nahiko robotizatuta badagoz be, oiñetako edo zapaten industrixiaren egoeria oso bestelakua da, oindiok be nahiko modu artesanalian jarduten daben sektoria dalako. Halande be, Tekniker-IK4k gidatutako proiektuan biharrin diharduenak pentsatzen dabe artisauprozuesuetako batzuk robotizatzeo aukeria badaguala eta horretarako gauza izango dirala. Horregaittik, datozen hiru urtietan horretan buru-belarri jarduteo asmua dake. Tekniker-IK4k espezializaziño mailla haundixa lortu dau Prezisiño Ingenieritza eta Mekatronika, Superfizietao Ingenieritza, Produkziño eta Automatizaziño Ingenieritza eta Fabrikaziño Teknologixiak moduko sektoretan. Bestalde, 2009xan 21 millioi euroko kostua izan eben prozesuak garatu zittuen Teknikerren.



MAITANECASTILLOOTAOLA

IV. urteurrena


"Estali arren, ez baita itzaltzen IZARRAK DUEN DISTIRA"

ZURE KUADRILLA




Hizkuntza eskakizunak dirala-eta, funtzionarixuen perfillak martxan jarri ziranetik badira hainbat bihargin liberatzen dituenak hizkuntza hori ikasteko: batzuk egun osorako, beste batzuk hainbat ordutan. Euskeriaren kasuan, IVAPek egindako azken examiñetan askok suspendidu dabe. Ondo aprobetxatzen dabe aukeria?

Zelan ikusten dozu hizkuntzak ikasteko bihargiñak liberatzia?



JAVIER ETXEBERRIA
83 urte
jubilaua

Hizkuntzak ikasteko denboria eta gogua behar izaten dira. Gehixago kontrolatu biharko litzateke persona horrerri emoten detsen denboria hizkuntza ikasteko erabiltzen dabela, aprobetxatzen dabela. Ez dago ez denborarik ez dirurik galtzeko.



Mª ANGELES IGLESIAS
56 urte
etxeoandria

Langillieri lagatzen detsen denboria benetan hizkuntzak ikasteko erabiltzen badabe ondo ikusten dot, beti be denbora hori ondo aprobetxatzen bada. Kontrolatu biharreko gaixa dala uste dot.


RAKEL MORAL
24 urte
tabernarixa

Ez jata ondo begittantzen liberatzia eta denbora hori ondo ez aprobetxatzia, gauza horrek gehixago kontrolatu beharko lirakez eta aprobetxatzen ez dabenari soldatetik kendu. Badago jendia egun osua dakana euskeria ikasteko eta milla urtetan ez dabenak ikasten; hori ezin da onartu.



IÑAKI OSORO
45 urte
teknikua

Euskeriaren kasuan danetarako eskatu beharko litzake, eskakizun moduan jasota egon biharko litzake eta ez dakixana bihartuta egon beharko litzake ikastera. Zorroztasun gehixagorekin jokatu biharko litzateke.



PREST



MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

902 110 436

www.mondragon.edu/prest

ATE IREKIAK

ARETO
NAGUSIAN
Ehoni aurritu!
Garai onak!

Goi Eskola Politeknikoa

ORDIZIA OTSAILAK 3 osteguna, 17:30

ARRASATE OTSAILAK 5 larunbata, 10:30

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

ESKORIATZA OTSAILAK 3 osteguna, 18:00

Gastronomia Zientzien Fakultatea

DONOSTIA URTARRILAK 29
larunbata, 10:30

Miriamongo Pateo Teknologikoa
... irakurri nagusia



Antxon Narbaizak ez dau atsedetik hartzen eta bere lan sakonekin jarraitzen dau. Azkena juañ zan astian aurkeztu eban Udaletxian, aurretik Badihardugu euskera alkarteko stand-ian Durangoko Azokan salgai egon bazan be, berau izan baita argitaratzaillia. Artxibo-ian haundixa eskatu detsan liburuak "Hizkuntza eskakizuna Eibarko Hirian 1900-1936" dauka izenburutzat.

Administraziñuetako hizkuntza eskakizunak, gehixenbat perfillak ize-narekin ezagutzen diranak, azken urtiotan berebiziko presentzia izan badabe be gure gizartian, ez dira ezebezetik sortutakuak. XIX. mende amaierian eta XX.aren hasierian be bae-guazen hainbat kezka hizkuntzarekin: euskeriarekin eta gaztelaniarekin. Holako neurrixekin komunikaziñua billatzen zan, herritarrak eta funtzionari-xuak euren artian alkar ulertzia: helburu funtzionala zekan horrek. Baiña izan ziran be, "helburu hezitzailliarekin", ikastetxietan euskera baztertu eta gaztelaniaz egittera bihartu eben neurrixak.

IVAP-endako egindako lan baten ondotik bururatu jakon Narbaizari liburu hau kalera-tzia, "Eibarko hainbat datu aurkittu nittuan-eta Primo de Rive-raren sasoiko Gipuzkuari buruzko beste lan batian". Hango "lan-dinamikak" ekarri eban oingo emaitzetara, euskeraren perfillen inguruan Diputaziñuak eta Udalak zelan jardun eben argitze bidian.

106 lanpostutik ezinbestekua bittan

Liburuak aztertzen dittuan 36 urte horretan, 106 lanpostu barri



Niceto Muguruza doktoria, udal-laborategiko burua, bere laguntzailliekin.

Herrixak euskeraz jardun arren, agintarixak gaztelera lehenetsiz

sortu ziran Eibarko udalian eta, horretatik, bittan bakarrik izan zan euskera ezinbestekua lanpostuan jarduteko. Beste bittan lehenetsi egin zan, 14 kasutan merezimendu moduan hartu zan eta beste 88 kasuetan ez zan

eskakizunik egon. Hori bai, ohikua izaten zan be batek promesia egiñ euskeraz bazekixala esanaz eta holan hartzia. Halanda be, lanpostu askotan euskaldunak jardun eben, "baiña hori kasualidadia zan, eskakizuna

baiña gehixago". Udal medikua- ren kasuan, esaterako, aukeratuak euskaldunak izan ziran beti Sostre etorri arte. Gauza bera gertau zan be Amós Ruiz udal-tzainburu aukeratu ebenian: euskera ez zala kontuan hartu.

ANTXON NARBAIZA

"Agintarixak utzikerixiaz jokatu eben euskeriaren eskakizunen kontuan"

– XX. mende hasiera horretako hizkuntza eskakizunetan, Eibarren berezitasunak emon ziran, beste inguruko herrixetan jarraitzen zanaren kontra?

Hamen Elgoibar, Bergara, Soraluze eta inguruko bidderi jarraitu biharrarian, herri liberalen aldeko hautua egin zan: gehixago jarraitu zetsen Donostian eta Iru-nen hartutako jarrerari. Azken honetan hizkuntza eskakizunak ez ziran hain kontutan hartzen eta "lanpostu horretako onena" hartziari jarraitzen zetsen. Oñatin presa baten arduria izateko euskalduna izatia biharrezkua zanian, hamen Estatuko Boletin Ofizialian egitten ziran deialdixak, Madrilgo eta Valladolideko jendiari aukeria emonaz aurkezteko. Hori Udalaren buru eguazanak, Orbeatarrak-eta, euskaldunak zirala!

– Urte horretan, orduan, esan leike jendiak gauza bat eskatu eta agintarixak, beste bide batetik, euren aldetik jotzen ebela?

Soziolinguistikoki euskeriaren eskakizuna derrigorrezkua izan bihar zanian, gure agintarixak (bai errepublikanuekin eta baita sozialistekin be) despistiaren terrenuan murgildu ziran eta utzikerixia be aurpegiratu leikixo bat baiña gehixagori.

– Zelan ikusten dozu gaur egungo egoeria administraziñuan euskeriaren presentziari dagokioxonez?

Perfillak egon badagoz eta zer gitxiago betetzia baiña! Halanda be, biharrezkuak dira bai borondatia eta baita kontzientzia hartzia be: borondatia izan bihar dau funtzionari-xuak azterketia gaindittu ondoren gero euskeraz egitteko; eta kontzientzia bihar dau herritarrak, lotsia eta beldurrak kendu eta euskeraz saiatzeko. Protestatzeko ohitturarik be ez dakagu-eta! Azken batian, Humboldt-ek esaten eban moduan, hizkuntza energi-xia dalako: ez da hor daguan zeozer, egitten doguna baiña!



Narbaiza, Ainitze Oruesagasti Badihardugu alkarteko ordezkariarekin eta Jone Telleria Eibarko Udaleko Euskara Normalizaziñorako batzordeko buruarekin.

Hamarretik batek akreditau dau eskatutako perfilla IVAP-ek egindako azken azterketetan

EUSKAL ADMINISTRAZIÑUAN EUSKERAZKO HIZKUNTZA PERFILLAK LORTZEKO AZTERKETEN AZKEN DEIALDIXAN suspentsuen marka guztiak gainditu dira. Instituziño eta erakunde publikoko 814 langille aurkeztu dira eskatutako mailla akreditatzera eta 71 izan dira bakarrak probia gainditzen, kasu gehixenetan gaiñera maillarik bajuena, hau da, 1-a. Edozeiñ ikasketetan dala be, %91'2k suspenditzia ez da gauza makala, baiña IVAP-en (Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundia) urtiak daroiaz antzera: euskal administraziñoko bihargiñak, irakasliak, udal eta diputaziñoko langilliak, unibersidadekuak aurkezten dira holako probetara eta badira hamar urte bihar izaten dituenak mailla egiaztatze (eta baita iñoiz lortzen ez dabenak be). Badago datu larrixagua: aurkeztutako gehixenak liberauta egoten dirala euskaria ikasteko, batzuetan egun osoz, beste batzuetan ordu batzuetarako. Iaz, gaiñera, ariketen modelua aldatu eban IVAP-ek Europako estandarrari egokitzeko; horrez gaiñ, irakaslegua euskalduntzeko Irale programa be aldatu dau Hezkuntza Saillak. Eta, azken aldixan, departamendu berberak esan dau D ereduan ikasi dabeneri ez jakuela azterketarik egingo mailla dakela probatzeko. Aurreko datuen harira, IVAP-etik esaten dabenez, azken hogeï urteotako ibilbidian 33.339 langille publikuen euskeraren perfilla akreditau ditu erakundiak.

Eusko Jaurlaritz: 213 aurkeztu, 17k gainditu
Gipuzkoako Foru Aldundia: 40 aurkeztu lauk gainditu
Bizkaiko Foru Aldundia: 32 aurkeztu, inork ez gainditu
Arabako Foru Aldundia: 40 aurkeztu, batek gainditu
Donostiako Udala: 34 aurkeztu, lauk gainditu
Bilboko Udala: 21 aurkeztu, inork ez gainditu
Gasteizko Udala: 93 aurkeztu, lauk gainditu



Primo de Rivera jauna Isasi kaleetik gora, La Marcial musika bandarekin eta Ignazio Anitua, Eugenio Urroz parroku eta beste agintari batzurekin, 1924. urtarian. / INDALEZIO OJANGUREN

Eibarko Udaleko perfillak: 20 urte Plana abiatu zala


UNE HONETAN EIBARKO UDALEKO ATAL GUZTIETAN -zerbitzu arloko Brigadan kenduta- hizkuntza eskakizuna betetzeko derrigortasuna dago indarrarian. Gaiñera, bostetik lauk eskatutakua (2, 3 eta 4 perfillak) lortuta dake eta eskuratzia falta jakon beste %20xari dagokixena lortzeko bidian dago eta danek dake mailla bat gitxiago behintzat lortuta. Eibarko Udalian perfillak eskuratzeko Plana oin dala hogeï urte (1991n) ipiñi zan martxan eta gaur egun, udaleko lanpostu fijueta sartzeko, biharrezkua da lanpostuari dagokixen perfilla oposaketia egitteko momentuan akreditatzia.

Narbaizaren liburuan ikusten danez, 1900etik 1936ra artian hizkuntza eskakizunaren billakateria jarraituta, euskeriaren eskakizuna udaletan ateporala izan zan. Eusko Ikaskuntzaren 1918ko Biltzarrak ekarri eban pizkundia inflesio puntua izango da, batez be ordutik aurrera Euskal Esnaleak, Euskaltzaindiak eta beste batzuk eskakizuna aplikatzen ez ebenak salatzerantz animatzen ziralako, haura arautziaren alde baiño gehixagotan. Gure herrixan 1928ko udal araudixak hizkuntza eskakizuna be ukittuko

dau, gauza asko aldatu barik; 1934kuan, bestalde, idazkari bariak araudi bariak ekarri dau eta Eibarko udalbatzen betiko postulatuen barrutian lagako gaittu; hau da, gaztelaniaren presentzia ahalguztiduna bermatu eban. XX. mende hasieran euskeria eguneroko bizitza bazan be ziñegotzi erdi alfabetatu baten tzat, neurrixak beste bidetik jo eben eta, urtiak aurrera, agintariak gero eta sensibilidade gitxiago erakutsiko eben euskararekiko, errepublikazaliak be bere barrutian baztertzera iño.



1931-V-3. Eibarko udalian Alejandro Telleria alkatiak eta beste hainbat ziñegotzik ongi-etorrixa emoten Miguel de Unamuno, Indalezio Prieto, Marcelino Domingo eta Queipo de Llano generalari. / INDALEZIO OJANGUREN



Luisa Ormaetxea Arrizabalaga-ren


heriotzaren 1. URTEURRENA

**GURE BIZITZAN ZAUDE BETIRAKO.
MAITE ZAITUGU.**

Zure Familia

Eibar
2010eko otsailak 1



TEEN-
AJEA

14 urte egin berri ditu eta waterpoloa praktikatzen ere denbora gutxi darama. Kala ere, erakutsitako maila bikainak kirol horretan adituaren atentzioa deitu du eta Euskadiko selekzioarekin izan da dagoeneko. Proiektzio handiko jokalaria dugu, beraz, Urbat-Urko tronikaren diharduen Soraluzeko gazte hau. Ederra jauzia eman duena Bergarako igerilekutatik.

MIKEL RECIO, waterpolista: “Hiru kirol batzen dira waterpoloan”

- Zelan hasi zinen waterpoloa praktikatzen?

Igeriketatik nator. Deialdia egin zuten jendea behar zutela eta, probatu ondoren, pozik dihardut.

- Zer du kirol honek berezi egiten duena?

Davide Cerchi entrenatzaileak dio hiru kirol batzen direla baten: igeriketa, eskubaloia eta waterpoloa bera. Berak (Cerchi Italiako atezaina izan zen), gainera, seriotasuna eman dio taldeari.

- Lan asko eskatzen du? Ordu asko behar dira entrenatzen?

Egunero ordu eta erdi egiten dugu. Eskuko kirola izatean, indarra behar da eta hori ere lantzen dugu; batez ere nire kasuan, defentsa naizelako (zentral postuan jokatzen du). Beste postuetan abiadura izan daiteke garrantzitsuagoa.

- Talde askotan zabilta, ez? Maila desberdinetan probatu duzulako...

Hainbat mailakoekin dihardut jokatzen. Kadete taldearekin jardun izan dut: hor larriago gabilta saikapenean. Infantiletan, bestalde, Gipuzkoako indartsue-

nak gara. Eta seniorrekin ere jokatuta ditut partidu batzuk eta asko ikasten da.

- Zer moduz joan zitzaizun selekzioaren deialdian?

Ondo, aprobetxatzeko moduko esperientzia izan da. Zortea ere izan dut: taldeko Iker Garcíarekin joan nintzen -denbora guztian bide paraleloa egin dugu ia- eta, bera ateetan geratu zen moduan, nirekin kontaktzea erabaki zuten. Gipuzkoatik, Irungo bat eta ni gaude infantil mailako Euskadiko selekzioan.

- Zein asmo etorkizunerako? Noiz arte waterpoloan?

Gaztea naiz oraindik halakorik esatera ausartzeko. Badakit, esaterako, asteburu gogorra izango dudala, baina hemendik urtebetera batek daki! Bihar Zaragozara noa selekzioarekin jokatzerara eta etzi, ostera, Urbat-Urko tronik-ekin partidua dut Nafarroan.

- Jarraitzen duzu waterpolo nazioarte mailan?

Telebistan ez dago aukera askorik. Teledortean zortea izan dut zeozer ikusteko. Kroazia izan daiteke indartsuena.

aldatze

www.aldatze.org

Modernitatea helburu... Arragueta Fest Kubik

Aurreko astean aurkeztu zuten Arragueta Fest Kubik, gaur 22.00etatik aurrera Punto y Aparte diskotekak hartuko duen jaia. Grises, Planeta Leta, Zapato Tipo Bota eta DJ Euskalnew Collective talde eta disko jartzaileek osatzen dute kartela, denak punta-puntakoak. Izan ere, gure herria "modernizatzeko" helburuari jarraitzen diote antolatzaileek eta horretarako jai alternatiboak antolatzeko prest daude. Goizera arte iraungo duen jairako sarrerak bertan erosteko aukera izango da, 10 eurotan.



Grises (Zestoa)

Zestoako indie-rock taldeak aste honetan bertan sinatu du "El Hombre Bolígrafo" diskoa grabatzeko kontratua, Madrilgo Origami etxearekin. Ibilbide luzeko taldea da eta honezkeroko euren tokia aurkitu dute Sonorama edo Tremendopop jaialdien hurrengo edizioetako karteletan. Gaztelaraz abesten dute eta kantetako letra gehienek ondo pasatzeaz, festaz eta eguneroko txorakeriez egiten dute berba. Eñaut Gaztañaga (ahotsak eta gitarrak), Amancay Gaztañaga (koruak), Alejandro Orbeago (sintetizadoreak), Raul Olaizola (baxua) eta Antonio Diniz-ek (bateria) osatzen dute hainbat lehiaketatan saritu duten taldea.



Planeta Leta

Planeta Leta (Barrika)


Javier Letamendia disko-jartzailea dago izen horren atzetik, hamaika saltsatan jardundako musikaria. Besteak beste We Are Standard taldeko baterijolea eta El Inquilino Comunistaren partaidea izan da gaur egun batez ere produktore lanetan diharduen Planeta Leta. Gaur Eibarrera jendea mugiaraztera datorrela abisatu dute antolatzaileek, horretarako "klasiko" asko berreskuratuta. Gaueko jaialdian musika pintzatzen ibiliko da: The Beatles, The Clash, Franz Ferdinand, We Are Standard eta beste hainbaten abestirik ezagunenak entzun eta dantzatzeko aukerarik ez da faltako.



Zapato Tipo Bota

Zapato Tipo Bota (Castro Urdiales)

Pintxatzeko diskoez gain, beste sorpresa batekin etorriko zaigu Planeta Leta: Zapato Tipo Bota, berak produzitu berri duen taldearekin. Indie, elektronika eta rock-aren arteko nahasketatik sortutako abestiak eskainiko dituzte getxotarrek eta, berezitasunik nabarmenena ahots eta gitarraren artean lortzen duten fusioa omen da. Zuzeneko emaldiak bideo proiektioekin laguntzen dituzte, aintzinako western-ak, lur azpiko tunelak edota manga estiloko marrazki bizidunak erabilita.



AnaSincha



Ms Arania

Euskalnew Collective (Mundaka-Bilbo)


Anasintxa (Ai Ama) eta Ms Arania dira Euskalnew Collective. Lehenengoa berlindar ukitua duen mundakar petopetoa da eta musikarik koloretsu eta lotsabakoena ekarriko digu. Eta Ms Arania bilbotarrak (Glamourama), berriz, kantu erraz, ezagun eta dantzagarriak ipiniko ditu.



**GAUR
22.00etan
Punto y Aparte
diskotekan
10 eurotan**

Photocall-a eta bitxiak

Lau taldeen musikaz gain, jarduera osagarriekin jantzi dute jaia. Besteak beste "photocall" delakoa egongo da martxan Joseba Barrenetxea argazkilari profesionalaren eskutik eta taldeei ez ezik, animatzen diren guztiei erretratoak aterako dizkiete. Eta Eibaroko hainbat artistek bitxiak erakutsi eta saltzeko txoko kreatiboa ere egongo da. Zozketak eta bestelako sorpresak ere aurreikusi dituzte.




Joseba Barrenetxea

Asier Serranoren**kolaborazioa****Castellanizatu nazazue (I)**

Zuen Euskadi hori euskalduntzeko diru publikoa maneiatzen duzuen horiei, urgentziatzko eskari bat: *Castellanizatu nazazue otoi, nire inguruak eskertuko dizue. Zin dagit, ia gaztelera hutsezko berri paperetan irakurtzen ditudan euskararen inguruko estatistikak errebasatzean ez naizela erretxinduko, baina castellanizatu nazazue. Isilik geldituko naiz liberatuta egon den funtzionaritzaren % 90ak euskarazko perfil minimoa gainditu ez duela jakitean. Ez naiz asaldatuko Arantza Quirogak parlamentuan "jalgi hadi plazara" esan, eta bere partiduak senatuan "jalgi hadi plazara" lelo eraginkorrari ukazioa ezartzen dionean. Patxi Lopezek irri bihurriaz euskarazko klaseetatik piper egiten duela aitortzean ez naiz sutan jarriko, ezta administrazioko euskarazko itzulpen ezinezkoak ulertzen ez ditudanean... Lasai bizi nahi dut nire euskalduneria konplexua, eta castellanizatu nazazue. Merke aterako zaizue eta gainera, inork ezingo dizue inoiz gehiago gaineratu Gure Euskal Herria euskalduntzeko diru publiko eskandalagarria xahutu duzuenik. Horrela bada, castellanizatu nazazue, nire ultzerak eskertuko dizue.*

musika**Kepa Junkera
Herria**

"Etxea" eta "Kalea" lanekin batera osatu du Kepa Junkerak azken lan honekin trilogia. Hiru diskoetan euskal kanta tradizionalak jasotzen dira, Euskal Herriatik kanpoko musikariek interpretatutakoak: Estatu Batuak, Madagaskar, Grezia eta Koreako musikariek hartu dute parte diskoan. 23 abesti bildu ditu hirugarren lan honetan eta Paris, Istanbul, Casablanca eta Estatu Batuetako hainbat hiritan grabatu dituzte. Bertsio berri horietan folk, jazz, gospel eta tribu indiarren erritmoak aurkitu ditugu.

**Keu Agirretxea
Denbora vs Kantuak**


CDan formato akustikoan plazaratutako hamar kantu berri daude, baxu, perkusio intimista eta tarteka haize instrumentuak ere bidelagun dituela. Eta horien maletatan istorio xumeak, egunerokotasunetako gogoetatik ateratakoak eta, alajaina, hurbilekoak. Horretan, Mikel Etxaburuk, Aitor Goenagak eta Kirmen Uribek lagundu dute. DVDari dagokionez, betiko kide duen Mikel Arakistain baxu jotzaileak lagunduta, Durangoko Plateruena Kafe Antzokian eskainitako kontzertu akustikoa jaso dute, soinu eta irudi kalitate ederra duena.

**Xabier Etxaniz
Txatartegirako ipuinak**

Udaltzaingoaren auto batek kalea mozten zuen. Haren atzean, Ertzaintzaren auto andana. Are atzerago behinola auto bat izan zena. Handik metro batera estalki hori bat. Haren azpian gorpu txikitu bat. Huraxe zen ordu batzuk lehenago iruditutako eszenatoki makabroa, eta Iñaki deman izorratu zuen hutsik ez zuela egin oharitzeak.

**Asel Luzarraga
Utopiaren itzalak**

Amaren suizidioaren ostean, Josuk, Eskorbuto taldeko izen-kide miretsia hiltzen den egun berean, desintoxikazio zentroa utzi eta familian enpresari aberats eta eszentriko fama duen osaba Arturren etxera doa berarekin lan egitera. Berehala kolokan geratuko da osabaz duen irudia eta, lanean murgildu ahala, konturatuko da Arturrek badituela bestelako ideak eta bestelako enpresa-jarduerak.

**literatura**

Kanpoko hotzaren aurrean...



...ETXEKO BEROTASUNA

2011ko
urtarrila

AMAÑA
FONTANERIA

BAINUEN INSTALAZIOA ■ SUKALDEA, GASA ETA KALEFAKZIOA ■
BAINUEN DISEINUA ORDENADOREZ ■ AIRE EGOKITUA

T. Anitua 12

Tel. 943 201 930

"JARDINES" ITURGINTZA

UR BERO ETA HOTZAREN INSTALAZIO MOTA GUZTIAK
KALEFAKZIOA

BAINUGELARAKO INSTALAZIO SANITARIOAK



ITURGINTZA, GASA ETA KALEFAKZIOA

Tailerra: JARDIÑETA, 11 BEHEA Telefonoa: 943 20 69 13
Faxa: 943 25 49 29 Mobilak: 615 78 26 38 / 615 78 26 37



MUGICA
ITURGINTZA

Tfnoa. 943 20 10 30

Faxa. 943 20 72 24


Helbide
Egigurentarren, 18
berria

Erradiadoreak purgatzearen garrantzia

Neguan bete-beteen sartuta gaude eta badira hilabete batzuk etxe guztietan berogailuak piztu genituela. Horien funtzionamendu eta errendimendua hobetze aldera, badira kontutan hartu beharreko hainbat gomendio, besteak beste, erradiadoreak purgatzea. Udaberri-udako hilabeteetan erabili barik egon eta gero, barruan izan dezaketzen haizea atera behar izaten da. Nola jakin gure erradiadoreak barruan haizea duen? Bi modutan: goiko aldean hotza dagoenean bate-tik, eta bestetik, berogailua martxan jartzerakoan borborraren antzeko

zarata egiten duenean. Barruan haizea duen erradiadore bat purgatzen ez badugu, erregaiaren zirkulazioa eten egiten da eta ez du modu homogeneoan berotuko.

Purgadorea erradiadorearen alde batean egoten den tresna txiki bat da; eskuzkoa edo automatikoa izan daiteke. Eskuzkoa denean, maratila edo giltz berezi batekin biratu behar da, eta beheko aldean eda-



lontzi bat jarri, behin haize guztia irten eta gero, eror daitekeen ura jasotzeko. Baina kontu izan, purgadorea larregi biratzen badugu urtxorroa irtengo zaigu-eta. Purgadore automatikoa, berriz, aluminiozko berogailuetan erabiltzen da. Oso eroso da, gu gainean egon barik, automatikoki botatzen duelako soberan duen haizea.

Hainbat solairutako etxean bizi bagara ohikoa da goiko pisuetako

erradiadoretan pilatzea haizerik gehiena. Horiek purgatu behar dira aurrena. Solairu bakarreko etxeetan, berriz, galdaratik gertuen dauden erradiadoreak purgatu behar dira lehelengo.

Erradiadoreak ondo purgatu baditugu, beroak homogeneoa izan beharko du etxe osoan. Prozedura hori ondo egin dugula frogatzeko beste modu bat izan daiteke hauxe: presioa barea 1-ean egotea.

CALEFACCIONES	KALEFAKZIOA Kalefakzio eta gas instalazioa. Mantenimendua.
EIBAR	KLIMATIZAZIOA Aire egokitua, bentilazioa eta aire kanporaketak.
CLIMATIZACION	ITURGINTZA
Estaziño, 14 (ERAKUSKETA) TEL/FAX: 943 12 18 33	

Toldoak, pertsianak eta leihoak

20 urteko esperientzia

FABRIKATZAILEAK GARA!!

Hemen dago alde!

Erakusketak: Eibar (943-176884)
Bengoia (943-530231)
Leizor (943-120009)
Telarra: Eibar (943-176881)

	ELEKTIBAR, S.L.U. ELEKTRIZITATEA PROIEKTUAK ARGIZTAPENA INSTALAZIOAK	* Denetarik ERREFORMAK * TELEKOMUNIKAZIOAK * ATE AUTOMATIKOAK * BERO URDINA
	JOSU BENGOA	
	Indalezio Ojanguren 2, behea, 27 EIBAR ☎ 943 70 05 42 Faxa: 943 53 02 31	
	Aurrekontuak konpromezurik gabe	

Eguzkiaren onurak aprobetxatzen

Eguzki bidezko kalefakzioa ez da berria, mende-etako bizia dauka, energia iturririk garrantzitsuena eguzkia izan baita betidanik. Eraikin 'adimenduek' gaur egun ere eguzki-energia aprobetxatzen dute (eguzki-kalefakzio sistema pasiboekin) eta azken belaunaldiko teknologia darabilten gailuak sortu dituzte. Eguzki kalefakzio aktiboarekin alderatuz gero (etxebizitzetako teilatuetan ipintzen diren panelekin edo eguzki bidezko ur-berogailuak) ezberdintasunik handiena prezioa da. Eguzki bidezko kalefakzio sistema oinarritzokoa, eguzkiak eraikineraren sabaian dauden hodian barruko ura berotzen du eta berotutako urak eraikineran zehar egiten duen ibilbidean epeltasuna askatzen du. 70eko hamarkadaz geroztik hedatzen joan dira eguzki instalazio aktiboak eta, instalazioak berak zailtasun batzuk izan ditzakeen arren,



energia sortzeko orduan ez dago kostorik eta, beraz, amortizazioa berehalakoa izaten da.

Eguzkiaren indarra, urtean dauden egun eguzkituak... kokapen geografikoa faktore garrantzitsua izaten da sistema hau aukeratzeko orduan. Sasoi batean bakarrik oso toki eguzkitsuetan erabiltzen ziren horrelako sistemak, baina gaur egun gure inguruan gero eta hedatuago daude eguzki-panelak. Horrelakotan espezializatutako banatzaileek bakoitzaren neurria modurik egokienean moldatzen diren aukerak azalduko dizkie bezeroei, sistemari etekinik handiena atera ahal izateko. Euskal Herriko borda eta baserri inguru askotan gero eta gehiago dira eguzkiaren onurak aprobetxatzera animatu direnak eta hirietan ere bere tarte egiten dihardu epeltzeko ezagutzen den sistamarik zaharrenean oinarritutako honek.



IGA S.L. KRISTALDEGIAK

TAILER ETA BULEGOAK: Legarre, 15 –EIBAR–

Tfnoa. 943 70 25 41 eta 943 70 24 95
Faxa. 943 70 24 95 Mobila. 670 21 46 25

ERAKUSKETA ETA SALMENTA:

Birjiñape, 1 behe –EIBAR–
Tfnoa. 943 20 20 40

ERAKUSKETA ETA SALMENTA:

Zeharkalea, 12 –ERMUA–
Tfnoa. 943 17 69 56



ACHA Kristaldegia


Errekatxu, 3 EIBAR

☎ eta faxa: 943 20 39 03 c.acha@euskalnet.net

CLIMALITekin
isolatzaile onena lortuko duzu
akristalamendu bikoitzaz

METALEZKO ERAIKUNTZAK ALUMINIOZKO ETA PVC-KO AROZTEGIA

1984an sortua. Aluminio, PVC eta aluminio-egurrezko leihoen fabrikazioa. Lan mota guztiak honako esparruetan: burdin eta altzairu herdoilgaitza, atek, barandak, makinendako babesak, tximeneak, nabarrak, etb.



Txonta, 30 - 1. eta behe

Tfnoak: 943 12 13 67
Faxa: 943 12 01 50

ERAKUSKETA
Urkizu, 26

Tfnoak: 943 12 74 01

info@ulmar.net www.ulmar.net



Isolamendua ezinbestekoa da

Etxebizitzaren isolamendu termikoa ezinbestekoa dugu etxean tenperatura egokia izateko. Izan ere, gaizki isolatua dagoen etxeak energia gehiago behar du: ne-
guan oso azkar hoztuko da eta udan, berriz, gehiago berotuko da eta azkarrago gainera. Isolamendu on bati esker, zaratak murrizteaz gainera, beroak ihes egitea ere ekidingo dugu. Hala ere, beroa leku askotatik joaten da, batez ere leiho, ate, tximinia eta hodietatik. Beraz, zure etxean, urte osoan, tenperatura egokia



izan nahi baduzu har itzazu hainbat neurri. Leihoak isolatzea izan daiteke konponbideetako bat.

Leihoaren isolamendu termikoan zerikusi handia dute beirak eta marko motak. Kristal bikoitz eta leiho bikoitzei esker beroaren galera erdira jaitsiko dugu, eta aire-korronteak eta uraren kondentsazioa nabarmen murriztuko dira. Arotzeria motari dagokionez, burdina edo aluminioa bezalako materialek eroankortasun termiko altua dute eta beraz, hotza eta be-

roa erraz sartzen uzten dute. Adierazgarriak dira, aldiz, zubi termikoaren hausturako leihoak, isolatzeko materiala baitute markoaren barne eta kanpoaldean. Horrez gainera, pertsianen kaxetinek zirrikiturik ez izatea eta horiek ondo isolatuta egotea komeni da. Etxean tximinia badugu, erabiltzen ez dugunean, tiroa itxi beharko dugu. Isolamenduaren hobekuntza txikiekin energia eta dirua aurreztuko dugu, %30era arte kalefakzioan eta aire girotuan.

FABRIKA ETA ERAKUSKETA
Urtia Industrialdea- C1 pabilioia
ERMUA - BIZKAIA
Tfnoa: 943 170 184 Faxa: 943 170 571
e-maila: emankor@euskalnet.net
www.emankor.com

ERAGINKORTASUN ENERGETIKO ALTUKO ITXITURAK

ALUMINIO AROTZERIA

LEIHO ISOLATZAILEAK



BEIRATEAK



FATXADA ISOLATZAILEAK

ISOLAMENDU TERMIKOA



FATXADA AIREZTATUAK



Gurean gehiengo sindikala osatzen dutenek egindako greba orokorrerako deialdia Espainiako gobernuaren eskutik indarrean sartu nahi duten pentsioen erreformaren eskutik dator zuzen-zuzenean. Euskal Herrian eta Galizian greba orokorra deituta zegoen eta, horiekin elkartasuna adierazteko, estatu mailan beste hainbatek mobilizazioak egitea zegoen aurreikusita, ezkerreko sindikatuek deituta. Besteak beste Sevillan, Malagan, Madrilan, Zaragozan, Katalunian, Valentzian, Kordoban, Gijon-en, Kanarietan baita beste hiri batzuetan ere protestak egin behar zituzten, azken batean erreformak "langile guztioi maila batean edo bestean eragingo" digula argi ikusten dutelako.

Pentsio Sistemaren erreforma duela urtebete abiatu zuten Espainiako kongresuan eta orain arte Espainiako Bankuak, enpresarioek eta Espainian indar gehien duten sindikatuek eman dute erreformaren inguruan duten iritzia. Egunotan jardun dute, hain zuzen ere CCOO eta UGT sindikatueta ordezkariek erreformaren inguruko negoziazioa lantzen. Hala ere, Euskal Herrian gehiengo sindikala osatzen duten ELA, LAB, STEE-EILAS, EHNE eta HIRU ez datoz bat erreformarekin eta hortik atzorako egin zuten grebarako deialdia. Gurean ez ezik, estatu mailan ere horretarako deialdia egin zuten hainbatek, lurraldeka.

Orohar, planteatzen dituzten aldaketa guztiak batuta, ondorio nagusia, hau da, pentsio-



Etorkizuneko soldata ezbaian

dunek antzemango duten aldaketarik haundiena erosalmenenean zuzen-zuzenean izango duten murrizketa izango da. Hau da, azken batean eta laburbilduz pentsioa jaso ahal izateko bete beharreko baldintzak zorroztu egingo dira eta, gainera, jasotako diru kopurua gero eta txikiagoa izango da. Eragina, gainera, ez da berbera izango gizartearen sektore guztientzat. Sindikatueta ordezkariek

arabera jardunaldi osoz beharrean jardun barik, jardunaldi partzialean diharduenen kasuan, emakumezkoak nagusi diren sektoreetan, gaur egu-

nean eta aurrerantzean beharrean jardungo duten gazteen kasuan... horrelakoetan murrizketak are larriagoak eta nabarmenagoak izango dira.



Erreformarekin etorriko direnak

– **Erretiroaren adina atzeratzea.** Gaur egun jubilatzeke adina 65 urtekoa da, baina lan erreformak 67 urtera atzeratzea proposatzen du. Horren inguruan sortutako eztabaida ez da txikia izan, batez ere hainbat profesiotan adin horretan beharrean jarduten jarraitzeke ikusten diren zailtasunengatik.

– **Pentsioa jaso ahal izateko beharrekoak diren kotizazio urteak gehiago izatea.** Jubilazioa hartu eta pentsioa jasotzeko eskubidea izateko, beharrean jardun den bitartean Gizarte Segurantzari kotizatutakoari begira gutxieneke urte batzuk daude ezarrita eta horretan ere orain baino urte gehiagoz kotizatzea aurreikusten dute erreforman. Pentsioan jasotako %100 izateko, 38-40 urtez kotizatu izana ezarri nahi dute.

– **Arautzeke oinarria kalkulatzeko orduan, orain arte baino urte gehiago hartuko dituzte kontuan behin erregulazioari bidea zabaldu eta bertan jasotako onartzean.** Une honetan arautzeke oinarria kalkulatu behar dutenean, 15 urte hartzen dituzte kontuan. Baina erreformak aurrera egitekotan, oinarria kalkulatzeko 20-25 urte kontuan hartzea da litekeena. Aldaketa honen ondorio nagusi eta zuzena pentsioetan emango den jaitsiera da. Izan ere, jasotzen den diru-kopuruan %20ko murrizketa gertatu daiteke batzbestek.

Izadi
LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Radio Eibar
CADENA
SER
104,0 FM

KATU

KALE
TABERNA

BIDEBARRIETA, 1



Naia Carballo Euskadiko txapeliduna eskian

ASTEBURUAN BELAGUAN JOKATUTAKO ESKIKO EUSKADIKO TXAPELKETETAN, Klub Deportiboko hiru ordezkari hartu zuten parte eta oso maila onean jardun zuten. Horrela, zapatuan klasiako modalitateko txapelketa jokatu zen eta senior mailan, Naia Carballok emakumezkoetan irabazi zuen bitartean, Roberto Izagirre 4.a izan zen gizonezkoetan. Domekan, bestalde, skating modalitateko probak jokatu ziren eta hor Roberto Izagirrek 2. amaitu zuen seniorren artean eta Alberto Bagliettok bosgarren. Zelako tenperatura izan zuten? 15 gradu zero azpitik.


Xakeko talde biak Deporren bihar

EUSKAL LIGAKO TALDE NAGUSIAK SESTAO NATURGAS B LIDERRA HARTUKO DU eta Gipuzkoako Ligako 2. mailakoak Tolosa-Ibarra A: lehia

biak arratsaldeko 16.00etan hasiko dira. Azken asteburuan, bestalde, talde nagusiak denboraldia indartsu hasi duela erakutsi zuen berriro, bina berdinduz Iruñeako Oberenan; talde horretako lehenengo mailan jokatzen du Jesus de la Villa nazioarteko maisu handiak.



Aranak eta Julen Garrok irabazten zuten bitartean, Olmok eta Haritz Garrok amore eman behar izan zuten. 2. mailako taldeak, bestalde, 1-3 irabazi zuten Arrasaten, bertako Arlutz C-ren aurrean. Olabek eta Freirek irabazi zuten eta Lópezek eta Baenak berdindu.



Iñaki Del Rey Supermotard-eko Euskadiko azpitxapelidun

BETIKO LEGEZ, ERREGU-LARTASUNAREN BIDETIK JASO DU SARIA IÑAKI DEL REY MOTORZALEAK, Supermotard modalitateko Euskadiko txapelketan bigarren postuan amaitzeko. Sei probako txapelketa hori Aranda de Duero hasi zen apirilean eta Abadiñon amaitu irailean. Eibarko motor-gidariak, Arandan irabazteaz aparte, bost aldiz amaitu du bigarren eta

lau bider izan da hirugarren. Villarcayon, lehen manga 2. postuan amaitu eta gero, erorketa mingarria izan zuen eta haren ondorioak jasan behar izan zituen uda osoan. Azkenean Aitor Martínez izan da modalitateko txapeliduna eta, eibartarraren atzetik, Imanol Garitano sailkatu da 3. postuan. Sarien banaketa gala Elgoibarko Antzokian egin zen hilaren 15ean.



Alberdi eta Varela igerian Euskadirekin

URBAT-URKOTRONIK-EKO MARKEL ALBERDIK ETA NORA VARELAK OTSAILAREN 4-TIK 6-RA ARTE Madrilen jokatuko den komunitate autonomoko Espainiako txapelketan izango dira Euskadiko selekzioarekin. Markelek libre estiloko 200 eta 400 metroko probetan hartuko dute parte eta Norak braza estiloko 100 eta 200 metrokoetan.

etxola
JATETXEA

etxolajatetxea@hotmail.com
Erreserbak: 943-207019
Txirio kale, 1

Eguneko menua / Karta / Pintxoak
Enpresa eta taldeentzako aurrekontuak

publi resa

- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta ENPRESETAKO OPARIAK
Armagin 3 - behea

eta faxa: 943 70 14 97
Publi.resa@euskalnet.net



Teránek (zuriz jantzita) lasterketa bikaina egin zuen Elgoibarko Mugerzan.

Terán alebina 5.a izan zen Mugerzan

DOMEKA GOIZEAN ELGOIBARREN JOKATUTAKO MUGERZA MEMORIALAREN EDIZIO BERRIAN, Klub Deportiboko alebin mailako atletak lasterketa bikaina egin zuen; baina, hala ere, 5. postuarekin konformatu behar izan zuen. Aurretik Irunen, Eibarko Bolunburu Memorialean eta Zornotzako nazioarteko krosean irabazle izan denak aukari gogorragoak aurkitu zituen oraingoan. Zornotzako proban, bestalde, Teránek alebinetan irabazteaz gain, Klub Deportiboko Txomin Osoro bosgarrena izan zen kadeteetan.



Sergio Boullosa, Javier González, Berriozabal delegatua eta Zigor Altuna epailea.

Kasinoko neguko billar txapelketa Javier Gonzálezen esku

JAVIER GONZÁLEZ ETA SERGIO BOULLOSA DIRA DEBA BAILARA ETA DURANGALDEA ORDEZKATZEKO aukera gehien dituztenak Espainiako hiru bandako billar txapelketaren LXXVII. edizioan parte hartzeko. Txapelketa hori Valentziako Paiporta herrian jokatu da otsailaren 7tik 13ra arte. González Euskadiko eta inguruetako espezialista onenatarikoak, bestalde, Eibarko Kasino Artistan jokatuak neguko txapelketa irabazi du, final estuan Sergio Boullosari irabaziz.

Eibar-Zamora, domekan 17.00etan

ANDUVAKO ZELAIAN ESKURATUTAKO GARAIPEN GARRANTZITSUAREN ONDOREN, Eibarrek sendoago jarraitzen du sailkapeneko 2. postuan, Alavésengandik puntu bira. Domekan azken postuetatik gertuago dagoen Zamora hartuko du Ipuruan: Gaztela-Leongo taldeak 3-0 irabazi zion azken asteburuan Manixen taldeari Ipuruako azken partiduan ezustea eman zion Leonesari. Partidua 17.00etan hasiko da, eta zuzendaritza taldeak eta teknikoez ez dute baztertu oraindik ere urtarrilaren 31 baino lehen plantilara jokarlari berriak ekartzea.

Ivan Garcíaen debut bikaina

Lago Juniorrek bere debutean talde nagusiarekin egin zuen moduan, Ivan García modu ezinhobean debutatu du Eibar B-rekin.



Berak sartutako gol biei esker, mailari eusteko borroka berean dabilen Santurtziri irabazi zion Garitanoren taldeak. Superliga-ko neskei, bestalde, gero eta tarte gutxiago geratzen zaie azken postuetatik irten eta maila ez galtzeko: asteburuan Nastic-en aurka jokatu dute Tarragonan, euren moduan punturik gabe dagoen taldearen aurka.

Bihar 15.30etan rugbia Unben

EIBAR HIERROS ANETXEREN TALDE NAGUSIAK AMPO ORDIZIA HARTUKO DU BIHAR ARRATSALDEAN, 17.00etatik aurrera, mailaz igotzeko daraman borrokaren barruan. Azken asteburuan Eibarko taldeak galdu egin zuen Santanderreko Independiente taldearekin; baina, hala ere, aukerak ditu oraindik 2. postuaren bila joateko. Aurretik nesken taldeak jokatu du La Unicaren aurka, 15.30etan hasita. Jubenil (12.00etan) eta infantil (11.00etan) mailako taldeek domeka goizean jokatu dute Unben; aurkariak Baztan eta Bera-Bera izango dira.



MAIALEN LÓPEZ IGLESIAS

1. URTEURRENA (2010-I-30)

EZ DUGU ZURE IRRIBARREA INOIZ AHAZTUKO.
MAITE ZAITUGU, MAIALEN.

Zure lehengusu-lehengusin,
osaba-izeba eta amamaren partez.



Kukulak Eibarko enpresak saria jaso du Fitur Nazioarteko Turismo Ferian, Natura sailean. Besteak beste Flysh-ak kaiak eman bisitatzeo aukera eskaintzen duen enpresa 180 produktu baino gehiagoren artean gailendu da. Karlos Villar arduradunarekin izan gara.



KARLOS VILLAR, Kukulak enpresako arduraduna:

"Flysch-a leku zoragarria da, lasai egon eta paisaiatz gozatzeko"

- Zelan hartu duzu albistea?

Madriletik deitu zigutenean albistea sorpresaz hartu genuen. Lehiaketan, lau ataletan (nazioarteko produkturik onena, natura, abentura eta kultura) guztira 180 produktutik gora aurkeztu ziren, eta lau mila boto baino gehiago jaso genituen. Epaimahaia Aire Libre aldizkariaren irakurleek, natura arloko hedabideek eta Fitur-en parte hartzen duten enpresek osatu dute. Sari hori nolabaiteko errekonozimendua da guretzako.

- Zer eskaintzen du zuen enpresak?

Kaiak ikastaroak, ibilaldiak itsasadarrean zein itsasoan, monitorearekin zein kaiak alokairua soilik; trekking-ak inguruko mendietan eta Pirinioetan, surf ikastaroak, paddle surf ikastaroak, BTT ibilbideak inguruko mendietan, hiria ezagutzeko bizikletaz eginiko ibilbideak Gasteizen eta Donostian, irteerak belaontzietan, sakan-jaitsierak eta taldeentzako jarduerak, besteak beste, despedidak. Eta neguan ere badugu zer eskaini: hilero autobus bat antolatzen dugu elurreta-

ra joateko, mendi irteerak raketekin antolatzen ditugu eta baita snowboard eta eski ikastaroak ere.

- Flysch-a gertutik ikustea da jendeak gehien eskatu dizuena. Zerk egiten du hain erakargarri?

Alde batetik, eta gauza guztien gainetik, leku zoragarria da ibiltzeko edota lasai egoteko, paisaiatz gozatzeko. Bestetik, Geoparke izendatu baino lehen eta ondoren modan jarri da, izendapenak jendearen jakinmina piztu du, eta geologian interesa duen jendea erakartzen du, geologia zein eta paisaia aldetik duen balioarengatik.

- Zelan erabaki zenuen horrelako enpresa bat antolatzeko?


Hogei urte nituela Pirinioetara joan nintzen eta han ikasi nuen. Snowboard irakaslea eta mendiko gida izateko ikasketak egin eta hainbat urtez enpresa ezberdinetan lan egin ondoren, neurea sortzea erabaki nuen. Kirol horiek nire bizitzan garrantzia handia dute, ez bakarrik diru aldetik, pertsonalki funtsezkoak dira niretzat.

Txema Serranoren argazkiei saria

URTEA HASTEAREN BATERA, TXEMA SERRANO KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKILARITZA BAZORDEKO KIDEAK SARI BI JASO DITU

bere argazkiei esker: Berriz egin berri duten lehiaketan hirugarren postuan sailkatu


da, "Andikoa" eta "Lariz" izenburuko argazkiekin. Eta Durangon, hango dendarien elkartekoek egindakoan ere saria eman diote, "Mañaria erreka Durangon zehar" gaitzat zuen lehiaketara aurkeztu zuen "San Ana" izenburuko lanari epaiamahaioek akzesita ematea erabaki zuten eta.



Sostoarekin Santa Agedari koplaka

DATORREN ASTEAN ETA OHITURARI HUTS EGIN BARIK, OTSAILAREN 4AN (BARIXAKUA) SANTA AGEDAREN OME-NEZ

abestera irtengo dira asko eta asko, tartean Sostoa abesbatzako kideak. Abesbatzakoek ez ezik, aurretik Sostoa jardundako lagunak ere izango dute 19.00etatik aurrera hasiko den kalejiran parte hartzeko aukera, hala nahi izanez gero. Horretarako, kalejiran abestuko diren koplak eta abestiek praktikatzeko entsegu bereziak egingo dira datorren astean (otsailaren 1ean eta 3an). Sostoako kide ohieki zabalduetako entseguak Musika Eskolan (Portalean) egingo dituzte, 21.00etan hasita.



Mojito jaia zapatuan Montekan

URTE SASOI HONETAKO HOTZARI BELDURRA KENTZEKO MODUA ASMATU DUTE MONTEKA TABERNAKOEK

eta, horretarako, bihar gauean Karibe aldeko giro eta epeltasunaren zati bat behintzat ta-

bernan pilatu nahi dituzte, 20.30etatik aurrera hasiko den Mojito Jaian. Eta behin ahotsak ondo epelduta, gauerdian parterako karaoke saioa prestatu dute animatzen diren guztientzat. Bestalde, Hawaienoz jantzita doanarentzat tragoarekin batera txupittoa doan emango dutela azaldu dute antolatzaileek.

Lapikotxiki liburu eta DVDaren aurkezpena

EGUAZTEN ARRATSALDEAN 18.00-ETAN HASIKO DA "LAPIKOTXIKI. KANTUZ KULUNKATZEN" LIBURUAREN ETA DVDAREN AURKEZPENA PORTALEAN. Esti González Solozabalen lana ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik argitaratu da, Udalaren babesarekin. Astekari honetan "Lapikotxiki" izenburuko atalean kaleratu ziren artikulu guztien bildumarekin osatu dute liburua eta, besteak beste, hainbat sehaska kanta batu ditu egileak, partitura eta guzti, haur jaio berri baten istorioa kontatzen duen ipuinaren hariari jarraituta. Liburuan jasotakoari laguntzen, gainera, DVDa osatu dute hainbat kan-



tari ezagunen kolaborazioarekin eta, horri esker, abestiak irakurtzeaz gain entzun ere egingo dituzte ikasi nahi duten gurasoek.

Ekitaldian Esti Gonzalez la-

naren egilearekin batera, M^a Jose Telleria Euskara-Kultura batzordeburuak eta Juan Domingo Barahona ...eta kitto! Euskara Elkarteko presidentek egingo dute berba.

Zapatuko ipuina

OIHANA ETXEGIBEL ALBERDIREN ESKUTIK JOANGO DA BIHAR ARRATSALDEAN, UMEEN LIBURUTEGIAN 18.00etan hasiko den Zapatuko Ipuina-ren saioa: "Emozioen zurrunbiloa" izenburuari jarraituta, ia ordubeteko iraupena izango duen ekitaldia 3-8 urteko haurrentzat pentsatutakoa da eta gure emozioetan (haserre, beldurra, tristura, poza...) oinarritutako ipuin kontaketa izango da. Oihana Etxegibelek hezkuntzan egiten duen beharra, batez ere psikomotrizitate arloan, eta aurretik ere liburutegi askotan hainbat jarduera garatzen jardundakoa. Besteak bes-



te erabiltzaile berrientzako bisita gidatuak, umentzat ipuin kontaketa saioak, ipuin tailerrak (Juil, Frida Kahlo, Tunela...) eta beste hainbat eskaini ditu.

laburrak

GOLDEN APPLE QUARTET "En blanco y negro" izenburuko ikuskizuna eskainiko dute Golden Apple Quartet taldekoek otsailaren 11n Coliseoan (15 euro), 20.30etan. Patxo Barco zuzendutako lanean, besteak beste, Eduardo Errondosoro, Loyola Garmendia, Kike Ochoa eta Manuel Romanok hartuko dute parte.

PIANO JAIALDIA

Otsailaren 13an, domeka, eguerdian II. Eibarko Gazteen Piano Jaialdia hartuko du Coliseoak, J.B. Gisasola Musika Eskolak antolatuta (sarrera euro bi) eta emanaldiko protagonistak eskolako ikasleak zein Isabel Laspiurrenak izango dira. Pianojole gazteak Andoianen otsailaren 19 eta 20an egitekoa den piano jaialdiaren VI. ediziorako trebatzen joateko aukera izango dute emanaldi honekin, han lehiatu aurretik.

EGOITZA NAGUSIA
Bilbarrizta 20 - beheko, eskuma

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

Tanatorio eta Errozketa laber

- Egaitzen (Signo poligonoan)
- Partikular, inbisa eta seguru etxei zerbitzuak
- Koroak - Eskalok - Urteurrenako eskalok
- Euskal Herri osoan ospitaleen bertan zoztuz
- Nazio eta Nazioarteko trasladoak

Mugica Erorketa

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951


ESTUDIOS ARRILLAGA

PROIEKTUAK
ERREFORMAK

LOKALAK
ETXEBIZITZAK

Arragueta, 12 EIBAR
Tel. 943 20 06 98

ELGOIBAR Errosario, 15
Tel. 943 74 40 19



Sei argitalpen berri UEUren eskutik

UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEAK (UEU) SEI ARGITALPEN BERRI EMAN DITU ARGITARA. Besteak beste sukaldaritza, gerra zibila, lurralde-antolamendua eta hezkuntza berezia lantzen duten lanak dira eta denak UEUren webgunearen bitartez erosi daitezke (www.ueu.org). "Sukaldaritza-teknologia: sukaldaritza-prozesuen oinarri zientifikoak", "Lurralde-antolamendua Euskal Herrian: gaur egungo egoera, gatazkak eta erronkak", "Lau Haizetara. Gerra Zibilaren ondorengo erbestez", "Hezkuntza Bereziaren oinarri psikologikoak. Aniztasunaren trataera" izenburuko liburuekin batera, UZTARO Giza eta Gizarte zientzien 75. aldizkaria, Aldiri. Arkitektura eta abar 4. aldizkaria dira argitara emandako lanak.

Emanaldiak otsailean ere

DOMEKAN NEVERMIND PEOPLE TALDEKOEN KONTZERTUAK JENDE ASKO ERAMAN ZUEN BISTA EDER KALEKO KARRIKA TABERNARAINO eta urtarrilean egindakoaren bidetik, tabernakoek otsailerako egitaraua prestatzen dihardute. Honezkerok tabernan eskainiko diren jardueretako batzuk zehaztuta dituzte antolatzailleek: besteak beste otsailaren 4rako musika emanaldia prestatu dute "Dj Fary Vs Dj Jokin Skywalker: Electro DJxen duela" izenburuari jarraituta. Hurrengo asteburuan (otsailak 11) musika beltz gaua ospatuko dute eta Dj GECH + Dj

Esaera zaharren inguruko lehiaketa martxan

EUSKALTEGI BIEK (UDAL EUSKALTEGIAK ETA AEK-K) ESAERA ZAHAR EDO ATSO-TITZEN INGURUKO LEHIAKETA ANTOLATU DUTE, Udalaren lankidetzaz eta Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren (EBPN) barruan, "herritarrek euskaltegi biei instalazioak zein bertan eskaintzen dituzten zerbitzuak gertutik ezagutzeko aukera izan dezaten".

Parte hartu nahi duenak atsoitiz edo esaera zahar bat aukeratu eta lehiaketarako bereziki euskaltegi bietan ipinitako kutxekako batean sartu beharko du. Ez da beharrezkoa izango aukeraturako esaera


zergatik aukeratu den arrazoitzea edo bestelako azalpenik ematea. Nahiago izanez gero, posta elektronikoa erabilia har daiteke parte (euskaltegiaeibar@telefonica.net edo eibar@aeek.org). Epaimahai batek aukeraturako du irabazlea eta jasoko duen saria, berriz, honakoa: Coliseoko emanaldi baterako sarrera bi, Museorako beste sarrera bi, Kalamuako Parlamentua jokoa eta Julen Zabaletaren "Eibar, Tintaz eta Lumaz" liburua. Bestalde, lehiaketa parte hartzerantz animaturako guztien artean hainbat sari zozketatuko dira (zozketako lehenengo hirurentzat Kalamuako Parlamentua jokoa

INOR
ez da
IKASIA
jaiotzen

eta "Eibar, Tintaz eta Lumaz" liburua; eta zozketako 4. eta 5.aren zatitza: Museorako sarrera bina eta Museora bertara joanez gero, "Eibar. Ciudad taller" liburua). Parte hartzeko azken eguna otsailak 11 izango da. Bestalde, jasotako esakerak www.eibarko-euskara.com web orrian eta www.eibarko-udaleuskaltegia.blogspot.com gunean jasoko dituzte.

Makrobiotika eta ileapaindegi ikastaroak

MARTITZENEAN, HILAREN 2-AN ABITUKO DA ...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEAK ANTOLATUTAKO MAKROBIOTIKA IKASTAROA, Portalean (sukaldean). Simone Begiristainen eskutik garatuko den ikastaroak hurrengo egunean izango du jarraipena eta hurrengo astean, otsailaren 9an eta 10ean emango diren klaseekin amaituko dute izena eman dutenek. Egun bakoitzean ordu pare bat emango dituzte makrobiotikaren nondik norakoak bertatik bertara ezagutzen, 19.00etan hasita. Bestalde otsailaren 22 eta 24rako ileapaindegi ikastaroa ere antolatu dute ...eta kitto! elkarteok. Klaseak elkartearen egoitzan bertan emango dituzte (Urkizu, 11 solairuarean), 19.00etan. Parte hartzeko interesa dutenek otsailaren 3tik 5era bitartean izango dute izena emateko aukera, ...eta kitto!-n bertan edo 943200918 telefono zenbakian. 10 euroko prezioa izango du ikastaroak (...eta kitto!-ko bazkide eta mintzalagunentzat doan).



OkerreKO (Rocksteady, Ska, Reggae eta Dub zaharra) tartean izango dira. Otsailaren 13an, arratsaldean Andraikan-en kontzertua egingo da otsailaren 8tik 28ra Peio Agirrerren lanekin argazki erakusketa egongo da martxan.


EUSKARAREN

BESTEEN HUTSAK AURREAN, GUREAK BIZKARREAN. Horrela dabilta PPKoak hizkuntzaren kontuetan. Joan zen astean lehen aldiz erabili zuten euskara Senatuan eta PPK gogor kritikatu du, ez zaiolako normala iruditzen gaztelaniar gain bestelako hizkuntza koofizialak erabiltzea, senatari guztiek dakitelako gaztelaniar; horrek ekarriko duen itzulpen gastuak kexu dira PPN, bereziki "krisiaren astindua jasaten dihardugun sasoiari". Bestalde, Europako Batasunak onetsi berri du patente bat hiru hizkuntzatan: ingelesez, frantsesez eta alemanez. Bada Mayor Oreja europarlamentarioa aztoratuta dabil: oso erabaki "larrizat" jo du hartutakoa, "gaztelaniar Europar duen paperari min handia" egingo diolakoan. Hiru hizkuntz horien nagusitasuna bermatuko lukeen justifikaziorik gabeko aukerarik ez duela patentearena. EBko herritar gehienek ulertzen badituzte ingeleza, frantsesa eta alemana, zergatik ez hartu kontuan prozesua zenbat garestituko lukeen patentea, hiru hizkuntzatan egin beharrean, dozenaka hizkuntzatan egiteak?


TXOKOA

laztanak emoten...


Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, NORA Ortuetas Vitores, hillaren 23an urtebete egin zenduan-eta. Muxu haundi bat Tia Edurne eta Tio Josuren partez.




Zorionak, amama JOXEPA, hillaren 26xan zure eguna izan zalako. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.




Zorionak, GAIZKA Zubizarreta, bixar zazpi urte beteko dozuz-eta. Famelixiaren partez.




Zorionak, HAIZEA, atzo urtebetetxua egin dozu-eta. Patxito haundi bat Garoa, Enara eta etxeko guztien partez.



Zorionak, ALAZNE Carballo, gaur hiru urte betetzen dozuz-eta. Muxu haundi bat aitta, ama eta famelixaren partez.



ERLANTZ: 26xan hiru urte egingo dozula-eta, egun zoragarria pasatzia opa deutsue Alaitz eta Ugaitz lehengusuak, Jose eta Olatz osaba-izebak eta aitxitxa-amamak.



Zorionak, XABIER, hillaren 19xan hamar urte egin dozuzelako. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.




Zorionak, ALBA, domekan urte bi egingo dozuz-eta. Laztan potolo bat famelixaren partez.




Zorionak, ENEKO Martín Barbero, atzo hamar urte egin zenduan-eta. Famelixaren partez.



Zorionak, MIKEL (hillaren 14an egin zenduazten urtiak) eta JULEN (25ian izan zan zure eguna), bixon 9. urteurrenien. Jarraitu foballari trebiak izaten. Famelixakuen partez.



Zorionak, JULEN, gure printze politta, otsaillaren 2xan lau urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, tio IGOR, domekan urtiak beteko dozuz-eta. Patxo haundi-haundi bat, Noraren partez.

zinea Coliseoan

28an: 22.30
29an: 19.30/22.30
30ean: 19.30
31n: 20.30

"Entrelobos"

Zuzendaria: **G. Olivares**
Aktoreak: **Sancho Gracia, Juan Jose Ballesta, Vicente Romero, Carlos Bardem**



1947an Cordoban jaiotako Marcos ahuntzak zaintzen ipini zuten Sierra Morenan zazpi urte zituenean. Bere ardura zuen ahuntzaina hiltzerakoan, bakar-bakarrik geratu zen ohianean eta 12 urtetan ez zuen harremanik izan gizakiekin, otsoekin moldatuz.

28an: 22.30
29an: 19.30/22.30
30ean: 19.30
31n: 20.30

"RED"

Zuzendaria: **R.Schwentke**
Aktoreak: **Bruce Willis, John Malkovich, Mary-Louise Parker, Morgan Freeman**



Frank Moses agente sekretua lanera bueltatuko da berriro bera hiltzen saiatzen direnean. Baina ez da bakarrik bueltatuko eta bere betiko taldea berreskuratuko du, beste hiru lagunekin izen eta ekimen handiko laukotea osatuz justiziaren bila.

28an: 22.30
29an: 19.30/22.30
30ean: 19.30
31n: 20.30

"Más allá de la vida"

Zuzendaria: **Clint Eastwood**
Aktoreak: **Matt Damon, Cécile De France, Jay Mohr, Bryce Dallas Howard**



Hiru lagun obsesionatuta daude heriotzarekin: George biharginak lotura berezia du hil ondorengoko bizitzarekin; Marie kazetari frantziarrak heriotzatik gertuko esperientzia biziko du; eta Marcus Londoneko ikasleak lagun gertukoena galduko du...

HILDAKOAK

- Javier Alday Ramos. 67 urte. 2011-I-20.
- Dolores Ramos Laiseca. 66 urte. 2011-I-20.
- Jose M^a Iturrioz Elortegi. 75 urte. 2011-I-21.
- Zacarias González Alonso. 93 urte. 2011-I-23.
- Amparao Lavín Abascal. 72 urte. 2011-I-24.
- Bitxori Ugarteburu Laskurain. 88 urte. 2011-I-24.
- Arantza Uriguen Aranburu. 72 urte. 2011-I-25.

JAIOTAKOAK

- Aner Alberdi Etxabe. 2011-I-14.
- Alex Bastida Barrutia. 2011-I-22.
- Laia Fernández Olañeta. 2011-I-22.

horoskopoa

ARIES

Ez zabiltza berandu: Aratosteetarako koko-jantzia egin dezakezu oraindik. Ez zaizula batere burura etortzen? Ba galdetu kuadrilakoei!

TAURUS

Urtea amaitu aurretik egin zenituen promesa guztiak apurtu dituzu. Hurrengoan badakizu: ahoa itxita jendeak ez dizkizu konturik eskatuko.

GEMINI

Gripea gure artean dago eta zu ez zara libratu: pazientzia eta zaindu ondo. Mimoak egitea ere eskatu dezakezu: jendea prest daukazu.

CANCER

Asko maite zaituen jendea duzu inguruan; beraz, aprobeitza ezazu egoera hori. Altxa burua eta egin irribarre! Mundua pozik duzu!

LEO

Besteei buruz berba egitea asko gustatzen zaizu, baina ederki gordetzen dituzu zureak ezta? Ez zaitetz izan hain kuxkuxeroa.

VIRGO

Larregi arduratzen zara zure itxuragatik. Ez al dakizu oraindik edertasuna ez dagoela fisikoan, baizik eta bakoitzaren barnean?

LIBRA

Beharpenetan zenuen diru guztia xahutu duzu. Pare bat kartel handi eta koloretsu ikusi orduko ipurdia galtzen duzu beti. Sekulakoa zara!

SCORPIUS

"Urte berria, bizitza berria" zurekin ez da bete. Betikoa egiten jarraitzen duzu eta, gainera, pozik zaude. Hori da, hori, zorionsua izatea.

SAGITTARIUS

Jende berri asko ezagutuko duzu hurrengo egunotan. Zuk duzun xarmarekin, normala da. Hala ere, adi ile luzedun neska horrekin.

CAPRICORNIUS

Urtarrila luzeegia egiten ari zaizu, ezta? Lasai, konturatu orduko otsailen egongo gara; eta Aratosteak ere gainean izango dituzu.

AQUARIUS

Martitzenean diruarekin lotutako albisteak jasoko duzu eta zure animoa zeharo aldatuko da. Aposturik ez egin badaezpada: ez zaizu komeni.

PISCIS

Zergatik zara hain zakarra zu baino gazteagoekin? Kontuz, edozein egunetan buelta etorriko zaizu eta orduan bai damutuko zarela.

Barixakua 28

ASANBLADA

17.30.- Aisialdirako gunea edo gaztetxea sortzeko ideiak batzeko batzar irekia. Untzagan.

JAIA

22.00.- Arragueta Fest Kubik jaia: Grises, Zapato Tipo Bota, DJ Leta eta DJ Euskalnew Collective. Sarrerak: 10 euro (aldez aurretik 8 euro). Puntu y Aparte diskotekan.

Zapatua 29

BAZKARIA

13.30.- San Juan Bosco ospatzeko zinema aretoetako beharginen bazkaria. Eskarne jatetxean.

IKASTEN

16.30.- Expe-Gazte: 9-10 urteko umeei sanblasak egiten erakusteko jubilatuek emango duten ikastaroa. Portalean.

LAGUN TALDEA

17.30.- "¿Cómo está el patio!" Lagun Taldearen ikuskizuna. Sarrera: euro bat. Hezkuntza Esparruan.

ZAPATUKO IPUINA

18.00.- Ipuin kontalari saioa, 3-8 urteko haurrentzat (50 minutuko iraupena). Umeen Liburutegian.

MOJITO JAIA

20.30.- Mojito jaiaren hasiera (Hawaiianoz jantzita doanarentzat tragoarekin batera txupittoa doan).

00.00.- Karaokea. Monteka tabernan.

Martitzena 1

IKASTEN

10.00.- "El proceso de la reproducción asistida y previsible futuro", Miren Mandiolararen eskutik. Armeria Eskolan.

SANTA AGEDARAKO ENTSEGUA

21.00.- Santa Agedan Sostoa abesbatzarekin abestu nahi duten kide ohie zabaldutako entsegua. Musika Eskolan (Portalean).

Eguaztena 2

IKASTEN

11.00.- Kafe-tertulia: internet bidez erosketak egitea, bidaiak antolatzea etab. Klub Deportiboan (T. Etxebarria kalean).

AURKEZPENA

18.00.- "Lapikotxiki. Kantuz Kulunkatzen" libururen eta DVDaren aurkezpena. Hizlariak: M^o Jose Telleria Euskara-Kultura batzordeburua, Esti Gonzalez lanaren egilea eta Juan Domingo Barahona ...eta kitto! Euskara Elkarteak presidentea. Portalean.

IKASTAROA

19.00.- ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako makrobiotika ikastaroa. Portalean.

Eguena 3

IKASTEN

10.00.- Filo-aula (Filosofia), Marisa Iglesiasen eskutik. Armeria Eskolan.

URTEKO BATZARRA

17.30.- Bazkideen urteko batzarra, Beheko Tokia jubilatuen etxean.

EGO-IBAR ZINE KLUBA

17.30 eta 21.00.- "Las vidas posibles de Mr. Nobody" (Zuz: Jaco Van Dormael). Sarrera: euro bi. Hezkuntza Esparruan.



IKASTAROA

19.00.- ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako makrobiotika ikastaroa. Portalean.

SANTA AGEDARAKO ENTSEGUA

21.00.- Santa Agedan Sostoa abesbatzarekin abestu nahi duten kide ohie zabaldutako entsegua. Musika Eskolan (Portalean).


SUDOKUA

4								9
				1		2		
	2	6	5		7	3		
		1	3		6	8		
	4						9	
		3	9		5	7		
		7	6		9	4	3	
		5		3				
8								2

DENBORAPASAK

6	8	4	9	1	7	2	5	3
2	1	8	5	3	0	6	4	7
3	7	5	4	2	6	1	8	9
7	5	2	6	8	3	4	1	8
8	9	3	2	4	1	7	6	5
1	4	6	8	7	5	3	9	2
9	3	7	1	8	4	5	2	6
4	8	8	3	5	2	9	7	1
5	2	1	7	8	8	8	3	4

AURREKOAREN EMATZA



erakusketak

- Urtarrilaren 31ra arte
BAKARNE ELEJALDE-ren "Lanzarote" argazki erakusketa. *Portalean*.
- JOSE LUIS MARTINEZ**-en "Turkia" argazki erakusketa. *Depor tabernan*.
- PEDRO ARRIOLA**-ren "India" argazki erakusketa. *El Ambigú tabernan*.
- Otsailaren 2ra arte
EUSKO TRENen unitate berriak ezagutzera emateko erakusketa. *Txaltxa Zelaian*.
- Otsailaren 6ra arte
"OROIPEN ARTEAN" I. Argazki Zaharberrikuntza-aren Erakusketa, Einer Rodríguez Ponce-ren lanekin. *Untzaga Zentro Sozialean* (erakusketa aretoan).
- Otsailaren 13ra arte
"MY WAY, NO WAY, ANYWAY" Ismael Iglesias-en irudi erakusketa. *Portalean*.
- Otsailaren 28ra arte
FERNANDO BEORLEGI-ren "Gogoaren pintzelkada garratzak" erakusketa. Lizarrako Gustavo de Maeztu museoa (martitzenetik zapatuta 11.00-13.00 eta 17.00-19.00; jai-egunetan, 11.00-19.00).

lehiaketak

- **Esaera zaharren lehiaketa.**
Lanak entregatzea eta informazioa: *Otsailaren 11ra arte*, Udal Euskaltegian (euskaltegiaeibar@telefonica.net) edo AEK Euskaltegian (eibar@aek.org).
- **Industriagintza V. Argazki lehiaketa.**
Informazioa eta lanak entregatzea: *Otsailaren 25era arte*, Armeria Eskolako Ikasle Ohien Elkartearen.
- **XIV. Eguen Zuri Argazki lehiaketa.**
Aratosteekin lotutako argazki-lehiaketa. Lanak entregatzea eta informazioa: *Apirilaren 5era arte*, arrate.kultu@eibar.org edo 943202299 zenbakia.
- **Ixuako Pasua - Valenciaga Memoriala.**
Apirilaren 3ko txirindularitza lasterketako argazki lehiaketa. Lanak entregatzea eta informazioa: *Maiatzaren 6ra arte*, Eibarko Txirindularien Elkartearen (Pagaegi, 3 / ccc@clubciclistaeibarres.org).

farmaziak

- 28, barixakua**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- 29, zapatua**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- 30, domeka**
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- 31, astelehena**
EGUNEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- 1, martitzena**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- 2, eguaztena**
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- 3, eguena**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- 4, barixakua**
EGUNEZ **Las Heras** (Sostoatarren, 10)
GAUEZ **Las Heras** (Sostoatarren, 10)

ikastaroak

- **Tai Chi Chi Kung (arnasketa eta kontzentrazioa lantzen ikasteko).**
Non eta noiz: *Otsailaren 18tik urriaren 28ra arte*, barixakuetan 16.30etatik 18.00etara (36 ordu) Ugan Klubean. Informazioa eta izen-ematea: toki guztiak bete arte, www.kutxasocial.net helbidean edo 902540040 telefonoan (astelehenetik barixakura, 08.00etatik 14.30etara).
- **Ileapaindegi ikastaroa.**
Noiz eta non: *Otsailak 22 eta 24, 19.00etan ...eta kitto!-n* (Urkizu, 11 solairuartea). Izen-ematea eta informazioa: Otsailaren 3tik 5era, ...eta kitto!-n (943200918 telefono zenbakian). 10 euro (...eta kitto!-ko bazkide eta berbalagunentzat doan).

telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	901 20 20 20
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak.	943 46 46 22
Gurutze Gorria..	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekuia.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	902 54 32 10
Pesa	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon. ..	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DO-NOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40-etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Laneguna: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunero: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Legarren pisua salgai. 70 m². Terraza handia (hego alderantz). Oso argitsua. 232.000 euro. Tel. 605-730131.

1.2. Errentan

– Pisua hartuko genuke alokairuan Eibarren. Tel. 678-097247.
– Eibarren edo inguruan pisua hartuko nuke alokairua. Txikia, lagun batentzako. Tel. 609-918803.
– 2/3 logelako etxebizitza hartuko nuke alokairuan. Tel. 618-877901.

2. Motorra

2.1. Salgai

– Opel Astra grisa salgai. 16 urte. Garajeon egonda. Egoera onean. Tel. 617-155976.

3. Lokalak

3.2. Errentan

– Lokala alokagai Eibarko erdialdean. 70 m². Komuna eta barrarekin. 20 urtetik gorako gazteentzat modukoa. Tel. 679-425467.
– Lokala alokagai Amañan. 180 m². Argitsua eta ibilgailuarentzat sarrera onarekin. Tel. 605-771570.
– Lokala alokagai Ibarburutze 4an, iturriaren parean. 200 m². Tel. 609-918803.
– Garajea alokagai (marra) Untzagan, Txaltza-Zelai azpian. Tel. 658-339709.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. Lana

4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko eta tabernak edo soziedadeak garbitzeko. Tel. 638-731827.
– Neska eskaintzen da txakurrak paseatzeko. Tel. 678-097247.
– Neska arduratsua eskaintzen etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 671-329852 eta 943-029329.
– Neska arduratsua eskaintzen etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 690-154754.
– Emakume euskalduna eskaintzen da etxeko lanetarako. Tel. 687-114707.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Esperientzia. Tel. 678-972690.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 669-068439.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 680-956954.
– Neska eskaintzen da jornada erdiz garbiketa lanak egiteko. Tel. 618-734000.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduka zein interna. Tel. 652-587259.
– Neska arduratsua eskaintzen da asteburuetan lan egiteko. Esperientzia. Tel. 681-322442.
– Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko, sukaldari-laguntzaile moduan eta nagusiak zaintzeko. Tel. 608-406751.
– Neska eskaintzen da umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 685-765340.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 663-682150.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 689-617818.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 689-935379.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 618-695736.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 646-821678.
– Mutila eskaintzen da peoi, sukaldari-laguntzaile edo garbitzaile moduan eta nagusiak zaintzeko. Tel. 686-077316.
– Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko, sukaldari-laguntzaile moduan eta umeak zaintzeko. Tel. 608-474923.
– Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko, sukaldari-laguntzaile moduan eta umeak zaintzeko. Tel. 608-376387.
– Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko, sukaldari-laguntzaile moduan eta umeak zaintzeko. Tel. 681-178842.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. 3 urteko esperientzia. Tel. 635-187901.
– Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 605-129530.
– Mutila eskaintzen da pintura lanak egiteko. Tel. 610-017571.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Ordu-tegi zabala. Esperientzia. Tel. 678-972690.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 689-798284.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Esperientzia. Tel. 608-147559.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Orduka edo gaeuz. Tel. 630-365137.

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

– Alemanierazko irakaslea behar da. Tel. 943-176632.

5.2. Eskaintzak

– Ingeles irakaslea eskaintzen da umei irakasteko. Tel. 645-488483.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Bizikleta estatikoa salgai. Oso berria. Tel. 670-793312 eta 943-127161.
– Bizikleta bi salgai. 6-12 urte bitarteko umeentzat. 100 euro biak. Deitu 21.00etatik aurrera. Tel. 943-204238.
– Fagor labea salgai. 595x592x529 mm. Tel. 669-245653.
– Autoarendako segurtasun aukila (9-25 kilo) eta egurrezko trona salgai. Merkea. Tel. 617-256466.
– Altxagailu elektriko artikulatua eslingarekin eta barandilla tolesgari parean salgai. Egoera onean. Tel. 943-120219 eta 659-208746.

6.3. Galdu/Aurkitu

– Ezkontz-eratzuna galdu zen hilarren 20an Mendaroko ospitalean. Sarituko da. Tel. 646-805546.
– Andrazkoaren artilezko eskularru beltzak aurkitu ziren Barakaldo kalean hilarren 23an. Tel. 675-712886.

6.4. Bestelakoak

– Zorionak, MIREN!!! Animo ta aurera: badakizu zure lagunak zurekin dagozela. Patxo haundi bat! Zure betiko lagunak.

Zuk uste baino hurbilago, nahi bezain urrun hel daitezten.

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA


EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Aurrematrikulak


HAUR, LEHEN ETA DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTETXEETAN



ITZIO D.B.H.

943 70 22 89

**Nahi bezain
URRUN HELTZEKO.
Heziketa ZIENTIFIKOA.
Heziketa MODERNOA.
GIZA heziketa.
HIRU HIZKUNTZAKO
heziketa.**



MOGEL ISASI D.B.H.

943 20 30 94



AMAÑA

943 20 72 50




ARRATEKO ANDRA MARIA

943 20 72 35




J.A. MOGEL IKASTOLA

943 20 84 87



SAN ANDRES

943 20 79 95



URKIZU

943 12 17 78

TEORIKA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK

Materia arriskutsuak / C.A.P.

Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko
nazioarteko agentzia **ziurtagiriak**
lortzeko ikastaroak



T. Etxebarria, 7

Tel. 943 70 23 84

Tel. 943 70 23 78



Irribarreak
gaztetu egiten gaitu

m **bista eder**
clínica dental - hartz klinika

Inplante eta
Hortz-Estetikan
adituak

Bista Eder Hartz Klinika
Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-
943 70 00 82 / 943 20 84 75